

Maddi Busto Niño kulturista, nazioartean garaile



Maila bikaina erakusten ari da urnietarra. Elkarrizketa eskaini dio Aiurriri / 2-3

Gipuzkoako golf txapelketa, Urnietan

Asteburu honetan Gipuzkoako Emakumezkoen lehen Txapelketa jokatuko da Urnietako Pitch & Putt zelaietan. Antolatzaileek ikustera bertaratzeko deia luzatu dute / 2-3



Ardurak, ordezkariak eta liberatuak onartu dituzte Andoainen. Ostegun honetan, Urnietan / 4



Kaletxikiko jaiak amaituta, Karrika auzokoak ostiral honetan abiatuko dira / 6-9



Auzoz auzoko bisitaldiak egingo ditu Gobernu taldeak, agintaldiko programa aurkeztu aurretik / 15

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Eskuak bete garaipen itzuli da etxera orain gutxi Maddi Busto Niño urnietarra. Kulturista da bera, eta uztaila hasieratik, profesional gisa lehiatzen da, Fitness Model kategorian. Ekaina hasieran, Valentzian izandako Espainiako txapelketan (AECN), bigarren postua eskuratu zuen, Fitness Model modalitatean. Are oparoagoa izan zen uztaila hasierako lehiaketa, izan ere, Salamanka egondako Europako ICN txapelketan, garaipena eskuratu zuen, bi kategoritan: MS Fitness Model Open-ean eta Pro MS Fitness Model Open-ean. Aitortza horren atzean, ordea, ahalegin zorrotzez betetako prozesu luzea dago, sakrifizio fisikoa, emozionala, psikologikoa eta ekonomikoa. Gaziak eta gozoak, datozen lerrotan.

Orain gutxi itzuli zara Salamankatik, ICN European Championshipetik, bi domina eskuan.

Ez naiz gai, oraindik, sentitzen dudana deskribatzeko, ez bainuen batere espero lorpen horiek guztiak eskuratzea. Halere, oso pozik nago. Espektatibak guztiz gainditu ditudala esango nuke. Kontent nengoen lortutako fisikorekin, baina sariak jasotzea, esperientzia biribil-biribila izan da niretzat. Ahalegina eskatzen du eta handia da sakrifizioa, kirol honetan, baita zure egunerokoan ere. Gauza asko alde batera utzi behar dituzu, horrelako prestaketan murgiltzen zaren unean.

Profesional mailara ere egin duzu jauzi asteburu honetan.

Hori da. Profesional izateko txartelak banatzen zituzten ni lehiatzen izan nintzen kategorian. Lehen postua eskuratu nuenez, hori ere lortu zuen. Zer esan nahi du horrek? Amateur izatetik, profesional izatera egin dudala salto. Hortaz, berriro kategoria horretara aurkeztuko banintz, profesionaletan arituko nintzateke.

Zentzu batean, gainera, profesionalizazio horrek, nazioarteko lehiaketei begira, atak ireki dizkizu, ezta?

Baita Europa mailakoetara ere. Amateur txapelketa irabazi ostean, Europa mailako profesional kategorian lehiatzeko aukera eman zidaten, eta, galtzeko ezer ez nuenez, aurrera. Bada, horretan ere lehen postua eskuratu nuen. Horrez gain, urrian hasten den bigarren denboral-

"Kulturismoan, mantsoak dira prozesuak eta lorpenak"

MADDI BUSTO NIÑO KULTURISTA

KULTURISMOA lazko urtearen amaieran hasi zen Urnietako kulturista udaberri honetan izan diren Espainiako eta Europako txapelketak prestatzen



Bi domina lepotik zintzilik itzuli da Busto Europako txapelketatik. AIURRI

dian, munduko txapelketa izango da jokoan, eta, bertan, Fitness Model kategorian profesionalki izena-emateko aukera dut. Une honetan, motibazio handia daukat, baina egia da nahiago dudala, ezer baino lehen, uda lasai hartu. Aurrerago, ikusiko da, aurretik aipatu bezala, handia da sakrifizioa eta ez dakit prest egongo naizen berriro ere prestatuntza horretan sartzeko. Maiatzaren eta ekainaren bueltan amaitzen dira txapelketak. Uztailean ere egoten da lehiaketarik, federazioaren arabera. Bigarren denboraldia urri zein azaro partean hasiko da.

Noiz komeni, hortaz, prestaketan hastea?

Kirol honetan, mantsoak dira prozesuak, lorpenak. Horregatik, behin lehiaketa bat amaituta, denbora-tarte bat utzi ohi du jendeak, berriro prestatzen hasi aurretik. Aldez aurreko antolaketa-lan handia eskatzen du, alegia, ez gara, soilik, bizpahiru hilabete lehenago hasten prestatzen.

Burua, halabeharrez, entrenatuta eduki behar, beraz?

Hori da. Aspaldi sartu nintzen fitness munduan. Gauza bat da bizitza-estilo osasuntsua izatea eta bestea txapelketetan parte hartzen hastea. Gutxi gorabehera, 2022ko abenduan jarri nintzen lehiaketari begirako prestaketan. Psikologikoki, lanketa handia eskatzen duen kirola da. Zure bizitzako askotariko alderdiak mahaigaineratu behar dituzu ikusteko ea merezi dizun horretan sartzek. Ondo sentitzen nintzen ni, eta aurrera egitea erabaki nuen, gaurdaino.

Entrenamenduen kasuan, eraginik izan al du txapelketetan parte hartzen hasteak?

Entrenamenduak, bere horretan, ez ziren horrenbeste aldatu. Halaber, dieta oso zorrotza eramaten dut eta horrek estresa eragiten du. Bada, gose hori saihesteko denbora-pasa gisa ere ulertzen dut entrenamendua; oso gustuko dut entrenatzea.

Prestaketan, taldean egiten al duzu lan?

Entrenatzaile pertsonala daukat, lehiatzeko beharrezkoa dela uste dudalako: gidatzeko, gauzak nola egin behar diren esateko... Ez da hain erraza nork bere kabuz horrelako egunerokoa izatea. Duela 6-7 bat urte hasi nintzen entrenatzailearekin eta, gaur egun, oso gustora nabil dudu-

narekin. Berarekin batera erabaki nuen txapelketari begirako prestakuntza egitea.

Arlo psikologikoan eta emozionalean inpakaturik izan al du diziplina zorrotza izateak?

Pertsonaren arabera izan ohi da hori. Batzuetan, haserre ikusi dut jendea, pazientzia txikiagoarekin. Ez duzu jendearekin hitz egin nahi, oso nekatuta sentitzen zarelako. Nire kasuan, neke handia sentitu dut eta botata egoteko beharra. Horrela, tarte libreetan, plan lasaiek egin ditut.

Eta beste esparru batzuetan?

Irakasle-lanetan jarduten naiz, eta, azken asteotan, ikasturte amaieran, pazientzia amaitzen ari zitzaidala nabaritu dut. Lagunen kasuan, ez dakit "aldendu" den hitza, baina egia da denbora luze igaro dudala haiekin egon gabe, aisialdi momentuak atsedean hartzeko erabili ditut eta. Familiarekin eta bikotekidearekin ere ondo eraman dut. Gainera, bikotekidea ere murgilduta dago mundu honetan, nahiz eta lehiatzen ez ibili.

Zein da zure errutina?

Bost egunetan entrenatzen dut, eta hainbat zatitan banatzen da nire entrenamendua: lehenik eta behin, bi egunetan hanka lantzen dut (kuadrizepsa edo femorala...); bigarrenik, gorputzaren goiko zatia lantzen dut (bizkarra, bizepsak edo bularra eta trizepsa). Beste egun bat gehitu nion entrenamenduari, sorbalda lantzeko. Otorduak ere zorrozki kontrolatzen ditut. Urtarrilean defizitarekin hasi nintzen, alegia, hilabete batzuk bolumena egiten egon ondoren, jaisten eta jaisten hasi nintzen, urte hasieran, definizioari begira.

Natural bikini fitness zarela diozu. Zer esan nahi du horrek?

Kulturismoan, oso entzuna da kimikoaren erabilera, eta nahiko nabaria da, gainera. Gaur egun, zenbait federaziok ez dute dopin kontrolik egiten eta beste hainbatek bai, "modu naturalean" lehiatze aldera, AECN, kasu. Azken bide horretatik jo dut nik, izan ere, osasunarekin lotzen dut kirola, eta, kimika erabiltzen duzunean, osasunaren zati hori galdu egiten da. Gihar handiagoa irabazteko edo definitzeko lagungarriak omen dira, baina, egia esan, ez daukat ideia handirik. **Natural Bikini Fitness kategorian ibiltzen zara zu. Zer da baloratzen dena modalitate horretan?**



Busto, Salamankan, Europako txapelketan. MADDI BUSTO NIÑO

Orotara, bi kategoritan hartu nuen parte Salamankan: batetik, Natural Bikini Fitness-ean eta, bestetik, Fitness Model-ean. Lehenengoan, neurri jakin batzuetako gorputza eskatzen dute, giharraren definizioa, eleganzia, tariman mugitzen jakitea... Aldiz, besteak Bikinni Fitness-ean eskatzen diren irizpideak ditu oinarri, baina tonu muskular handiagoa izatea eskatzen da, baita abdominal nabariagoak ere. Gauzak horrela, argi gelditu zen Fitness Model dela nire kategoria.

“GAUZA ASKO ALDE BATERA UTZI BEHAR DITUZU, HORRELAKO PRESTAKETAN MURGILTZEAN”

Irizpide hertsien arabera arautzen al dira txapelketak?

Arautegi bat dago alde aurretik zehaztuta: eskatzen duten forma fisikoa, bikinia nolako izan behar den, takoidun zapata motak, poseak... Europako txapelketaren kasuan, bi pertsona zeuden epaimahaian, herrialde bakoitzeko. Bertan, erabakitzen da zein izango den irabazlea.

Hasteko, orduerdiko aurkezpena egin behar duzu, nahi dituzun gorputz-jarrerekin, zure onenak direnekin. Beste partaideek beren burua aurkeztu os-

“ELEGANTZIAK PISU HANDIA DU BIKINI FITNESS ETA FITNESS MODEL KATEGORIETAN”

tean, pose jakin batzuk eskatzen dizkigute, normalean, aurrez aurre, bizkarra emanda eta bi aldeetara. Emakumezkoen kategorian, ikuspuntu ezberdinetatik erreparatzeko, tokiz aldatzeko esan ohi digute.

Horren harira, "gorputza landu behar da, baina funtsezkoa da atletaren feminitatea nabarmentzea", diote arauak.

Elegantziak pisu handia du ni lehiatzen naizen kategorietan. Espainiako txapelketan, esaterako, takoiekin ibiltzea hobetu behar dudala esan zidaten. Ez dago oso argi araututa zenbat zentrimetroko takoidun zapatak erabili behar diren. Zer gertatzen da? Lehiakideek ahalik eta takoirik altuenak erabiltzen dituztela, figura gehiago estilizatzeke. Horrelako batzuk erosi nituen. Ez nago ohituta, oster,

egunerokoan takoiekin ibiltzen. Nahiz eta entrenatu eta saiatu, ez naiz oso abila. Hala, puntuak galdu nituen horregatik.

Momentuan, zapore txarrarekin gelditu nintzen. Baina, bi aldiz pentsatuta, Europako txapelketari begira hobetu nezakeen zerbait zela jabetu nintzen. Finean, fisikoki ondo negoen, eta takoiena bazegoen hobetzerik. Horrez gain, takoi baxuagoak erosi nituen, erosoago sentizeko, Europako txapelketari begira.

Segurtasuna transmititzeak ere, oholutzan, presentzia irabazten laguntzen du, gainera, ezta?

Jakina. Tarima gainean, segurtasunarekin ibiltzeak asko laguntzen du. Alderdi hori kosta egiten zait niri. Hori ere entrenatu beharra dago.

Espainiako eta Europako txapelketak igaro berritan, eta prestaketa-prozesu luzearen ostean, tartekako gorputzari atsedean ematen jakin behar al da?

Ezin sinetsi nabil oraindik. Eta pa luzea izanda, eta, sei hilabetez, antolaketa lan handia eskatu dit prestaketak: otorduak neurtu, entrenamendu gogorrak... Nahiz eta, askotan, gogorik ez izan, egin egin behar nuen. Une honetan, malguagoa naiz, zentzu horretan. Mentalki prestatuta egon naizela iruditzen zait. Nire asmoa udan gauzak oso lasai hartzea da, datorrenean asko pentsatu gabe. Gorputzak fisikoki atsedena behar du eta, zer esanik ez, buruak.

Zein presentzia du kulturismoak Euskal Herrian?

Fitnessa modan jarri da, azken boladan. Joan ohi naizen gimnasioan, gazte asko hasi dira entrenatzen, baita geroz eta emakume gehiago. Zentzu horretan, jauzi kualitatiboa eman dela esango nuke.

Behin Europako langa igarota, munduko txapelketari begira al zaude?

Profesional txartela irabazi dudanez, bigarren denboraldian, munduko txapelketara joateko aukera dut, Fitness Model kategorian. Buruan dudana aukera bat da; gaur gaurkoz, oso motibaturik nagoelako. Halere, uda amaierara itxarongo dut eta gogoia baldin badaukat prestatuko dut. Etorkizunera begira, ez dut baztertzen berriro ere txapelketa batean parte hartzea. Gainera, gorputza apur bat gehiago landuta, Figure kategorian



Esker-eskuin, alderdi sozialistaren bost ordezkariak, EH Bilduko zortzi ordezkariak, EAJ-PNVtik agertu zen ordezkari bakarra eta Podemoseko ordezkaria. AIURRI

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Kargu-hartze ekitaldia egin ostean, arduradun eta ordezkari lanetan ariko diren karguak berri behar dira. Horretarako, ez ohiko udalbatzarraldia deitzen da, berrikuntza horiei ofizialtasuna emateko. Aurreko ostegunean egin zen pleno hori. Arduraren nagusien artean, Andoni Alvarez alkateak Sustapen ekonomikoa, Ogasuna eta Kirola sailak bere gain hartuko ditu. Marta Lasa alkate-ordeak Kultura eta Euskara bere gain hartuko ditu. Eta Hirigintza eta Zerbitzuak sailak, hurrenez hurren, Garazi Usandizagak eta Xabier Fondonek.

Sail bakoitzeko bina ordezkari izatea lehenetsi du EH Bilduk. Asmo horren bidetik Diego Barrasa zinegotziak laguntzaile lanak egingo ditu Kultura eta Zerbitzuak sailetan.

Elkarrekin Podemoseko Pepe Iparragirre zinegotziak ez du ardura zehatzik izango, baina gobernu taldeko kide izango da.

Hori eta gehiago ofizial egin zen osteguneko plenoan. Esanguratsua izan zen EAJ-PNV alderditik Txitxu Ruiz izan zela plenora agertu zen ordezkari bakarra. Imanol Goenagak eta Idoia Mikelezek huts egin zuten zutailaren 6ko plenoan.

Sailtako arduradun politikoak

- Andoni Alvarez: Alkatea, Sustapen ekonomiko, Enplegu eta Gazteria, Kirolaketa jarduera fisikoa, eta Ogasuna.

Arduradun berriak, abiatu den zikloan

Abiatu da agintaldi berria, aurpegi eta ardura berriekin. Tokiko Gobernu Batzordean EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiak izango dira. Horrez gain, ardurak, liberazioak eta bozeramailetzak onartu ziren

- Marta Lasa: Lehen alkate-ordea, Kultura eta Hezkuntza, Euskara.
- Xabier Fondon: Bigarren alkate-ordea, Zerbitzuak, Langilegoa eta Barne Antolaketa.
- Garazi Usandizaga: Hirugarren alkate-ordea, Hirigintza, Obra, Ingurumen eta Landagunea.
- Haizea Barandiaran: Gizarte Zerbitzuak, Emakume eta Gizonezkoen Berdintasuna.
- Diego Barrasa: Zerbitzuak eta Kultura eta Hezkuntza sailetan zinegotzi laguntzailea.

Tokiko Gobernu Batzordea

- Andoni Alvarez (EH Bildu).
- Marta Lasa (EH Bildu).
- Xabier Fondon (EH Bildu).

- Haizea Barandiaran (EH Bildu).
- Jose Mari Iparragirre (Elkarrekin Podemos).

Alderdietako bozeramaileak

- Marta Lasa: EHBildu.
- Maider Lainez: PSE-EE.
- Imanol Goenaga: EAJ-PNV.
- Pepe Iparragirre: Elkarrekin Podemos.

Liberazioak

Alkatea egun osoko jardunean ariko da. PSE-EEri egun osoko liberazioa dagokio. Aritz Alkain izendatu dute. Eta bigarren indarrari, EAJ-PNVri, %52koa dagokio. Txitxu Ruiz ariko da zeregin horretan. EH Bilduko

zinegotzi batzuk dedikazio partzialak izango dituzte. Handiena Marta Lasa alkate-ordearena izango da, %70eko jardunarekin.

Udalaz gaindiko erakundeak

- Tolosaldeko Hiltegia. Andoni Alvarez. Ordezkoa: Marta Lasa.
- Tolosaldeko Mankomunitatea. Andoni Alvarez. Ordezkoa: Marta Lasa.
- Gipuzkoako Ur Patzuergoa. Andoni Alvarez. Ordezkoa: Marta Lasa.
- Beterrri-Buruntzako Mankomunitatea. 1 Titularra: Andoni Alvarez. 2 Titularra: Jose Mari Iparragirre. 1 titular ordezkaria: Marta Lasa. 2 titular ordezkaria: Xabier Fondon.

Ardura guztiak, EH Bildurenak



Fondon eta Usandizaga. AIURRI

Sailtako arduradunak

EH Bilduk sail guztien ardura hartu du. Besteak beste, Zerbitzuak eta Langilegoa Xabier Fondonen esku egongo dira, eta Hirigintza Garazi Usandizagak hartu du bere gain.



Ruiz. AIURRI

Liberazioak

Alkateaz gain, gobernu taldeko hainbat zinegotzi partzialki liberatuta egongo dira. EAJ-PNVtik Ruizek egun erdiko liberazioa izango du. Eta PSE-EEK, egun osokoa.



Iparragirre. AIURRI

Gobernu batzordea

Pepe Iparragirre Elkarrekin Podemoseko ordezkaria Tokiko Gobernu Batzordeko kide izango da, EH Bilduko Andoni Alvarez, Marta Lasa, Xabier Fondon eta Haizea Barandiaranekin batera.



Produktu kimikoen biltegraino iritsi zen lurra. AIURRI



Lur mugimenduaren ikuspegia, gaikaldetik. AIURRI

Luizia, Kraft egoitza nagusitik gertu

Buruntza auzoan, Zalbide baserritik gertu, betelanak egiten ari diren eremuan lur mugimendu handia egin zen uztailaren 12an. Luizia Krafft lantegiko garaikaldetik iritsi zen. Metro gutxira daude lantegiaren biltegi handiak. Egoera ikusita, eta, prebentzio gisa,

suhiltzaileei deitu zieten. Badaezpada, lantegiko tresneria lekualdatzeari ekin zioten. Produktu kimikoak eta lubrikatzaileak ekoizten ditu Krafft lantegiak. Goizetik aferaren gainean izan ziren udal teknikariak eta alkatea. Bilera bat baino gehiago egin zituzten.



Suhiltzaileak, udal langileak eta arduradunak bertaratu ziren goizean. AIURRI



Aiurri.eus gunea, egunero, zabalik



Kaletxikiko jai batzordearen balorazioa



Gora Kaletxiki Bandaren emanaldia



Jaien jarraipena uda osoan



Ana Isabel Gaspar, jai-antolatzailea eta playbackeko izarretako bat. AIURRI

Xabier Lasa ANDOAIN

Harrigarria izaten da, baina nonbaitetik irteten zaio playbackeko jaialdian oholtzara ikuskizun batekin igotzeko kementa Gasparri.

Asteburuko ohiko formatua berreskuratu duzue.

Hala da, bai, eta pozik gaude. Iaz pandemia ostea egokitu zen, eta beldurrak-eta abarrak zirela-eta, ez genuen nahi genuen guztia antolatu ahal izan; egun bakarrek jaiari eutsi behar izan genion. Aurten, jada, normaltasunari heldu ahal izan diogu, eta ahal izan ditugun festarik duinenak eta erakargarrienak prestatu ditugu. Ea festa zaleen gogokoak diren!

Antolakuntzan, zer moduz ari zarete moldatzen?

Justu-justuan gabilta, urtero bezala! Orokorra da boluntarioen falta, edozein eratako gizarte nahiz kultur elkarteetan, eta Karrika ez da salbuespena. Hori bai, Karrikan beti eduki ditugu gertu kolaboratzaileak, honetan ez bada hartan lagunduko ditugutenak, eta eskertzekoa da hori. Aparte, aipatu nahi nituzke udalak ematen digun dirulaguntza, programan iragarkia sartu duten komertzio eta enpresak, edota, Coviran janari-dendako produktuekin osatutako zazpi saskiekin egingo diren zozketatarako zenbakiak salgai jarri dituzten Nairu, Dai-

"Ahal izan ditugun jairik duinenak prestatu ditugu"

ANA ISABEL GASPARGARRI KARRIKAKO JAI BATZORDEKIDEA

Arnasarik hartzeko kasik betarik gabe ibili ohi da Gaspar hara eta hona, Karrikako Jai Batzordeko beste kideen antzera, auzoko jaien aurreko bizpahiru hilabeteetan

co eta Itsaso tabernak eta Coviran bera.

Ostiralean, hasteko egitarau erakargarria jarri duzue.

Horretan gaude sinetsita! Txupinazoaren eta Zumba erakustaldiaren ostean, musikazaleen arreta deitzeko moduko ilunabar-gau polita eskainiko digute Aurora Beltran abeslariak eta Dukkha eta The Grace of Dionisus rock taldeek. Bokata-afa-

ria ere antolatu dugu era guztietako bokatekin, eta horrela, bertaratzen direnei Karrikako plazan ordu batzuk gustura iga-

"HANDIK ETA HEMENDIK MURRIZTERA KONDENATUTA GAUDE"

rotzeko arrazoirik ez zaie falta.

Larunbatean, danborrada kendu duzue.

Auzoko haur, gazte eta helduek batzen dituen ekitaldi parte-hartzailea, zoragarria izaten da. Baina, aurten, tamalez, bertan behera utzi behar izan dugu. Diruz eskas ibiltzea da horren arrazoa, izan ere, iaz ezin izan genuen ipini udal-laguntzekin

batera diru-sarrera nagusi izan ohi dugun txosna. Handik eta hemendik murriztera eta merkezurtean ibiltzera kondenatuta gaude, eta, horren ondorioz, danborrada ez ezik, txokolate jatea ere kendu behar izan dugu. Ez dakizu zenbateko mina eta lotsa ematen digun horrela ibili beharrak!

Igandeko playblacka, horri eutsi diozue.

Sakratua da ekitaldia! Mundu mailan horrexegatik garena eza-gunak esan ohi dugu auzotarrek, txantxetan! 1980an antolatu ziren lehenbiziko aldiz jaiak auzoan, eta sekula ez du hutsik egin ekitaldiak. Beti izan duen arrakastaren seinale. Jada jendea ari zait galdezka kalean, egingo ote den ala ez. Aurrez ari gara sumatzen ikusmina, bertan parte hartzeko nahiz ikusle izateko.

Zu zeu, oholtzara igo eta dantzan hasteko askorik behar ez duen horietakoa zara.

18 urterekin igo nintzen 1980an, jaiak antolatzen hasi ziren urte berean, eta harrezkero beti atera izan naizela esango nuke. Ez naiz ez dantzaria, ez antzerkilaria eta gutxiago musikaria, baina gorputzak eskatzen didan zerbait da. Azkeneko asteetan, antolakuntzako erantzukizunak ez didate utzi show handirik prestatzen, baina askorik ere ez dut behar. Peluka burura eraman, edozer trapu soinean jantzi, eszenatokira igo, eta eraldatu egiten naizela esango nuke. Beste pertsona edo pertsonaia bilakatzen naiz.

Auzotarrei eta gainerakoei gonbitea luzatuko nieke, anima daitezen parte hartzera. Lotsa edo barregarri geratzeko izua uxatu, eta igo daitezela oholtzara! Festarako gogoia da funtsezkoa, zeuk ondo-pasa eta inguruak ondo pasa arazi. Ez ahaztu Karrikako playbackean biltzen den publikoa esker onekoa dela, eta badakiela estimatzen oholtza gainean moztarrotu den horren ahalegina eta meritua.

Saskiak, zozketan

Coviran janari dendako produktuekin 7 saski zozketatuko ditu jai batzordeak. Zenbakiak euro batean, salgai daude honako komertzioetan:

- Coviran janari denda
- Daiko taberna
- Nairu taberna
- Itsaso kafetegi



AIURRI

Bokata-afaria


Bokata afaria iragarrita dagoen ordu berean, Aurora Beltran kantariak zuzeneko emanaldia eskainiko du. Eguraldi ona iragarrita dagoenez, kale giroaz gozatzeko iluntzea izango da. Larunbatean bigarren hitzordua iragarrita dago, bereziki haurrei begira. Haur tailerren ostean, makarroiak jateko hitzordua iragarrita dago.



AIURRI

Sagardo-dastaketa

Badira aurten egingo ez diren hitzordu klasikoak, hala nola, danborrada eta auzo afaria. Baina beste hitzordu batzuri eutsiko diote. Horietakoa da sagardo dastaketa, igande eguerdiko jai giroa alaitzeko baliagarria. Auzotarrak eta Andoaindik hurbiltzen diren herrikideak elkartzen dituen ekitaldia da.



@ANDERDJ_7

Ander Donoso DJ

Disko jartzaile gazteak larunbat gauari amaiera emango dio. Igande gauean ere, jaiari amaiera emateko, bigarren saioa eskainiko du. Musika dantzagarriak tartea izango du, aurtengo jaietan. Zuzeneko emanaldien eguna ostiralekoa izango da, Aurora Beltran, Dukkha eta The Grace of Dionisus taldeak igoko baitira taulagainera.



AIURRI

Playback saioa

Igande arratsaldeko hitzordua izaten da, jaietako ikur izan daitekeena. Hamarkadak baitira hitzorduari eusten. Batzuetan, kantuen bidez kritika egiteko. Tarteka, umorea zabaltzeko. Eta, beste batzuetan, dantza erakustaldia egiteko. Urtero-urtero, ikusle askoren arreta bereganatu izan duen hitzordua da.

Ostiralean hasi eta igandera bitarte, Karrika jaietan

Ostiral honetan, arratsaldeko 19:00tan hasita, txupinazoarekin abiatuko dira jaiak

OSTIRALA 14

ANDOAIN Karrikako jaiak
19:00 Jaien hasierako txupinazoa.
19:15 Zumba eta jumping.
20:30 Bokata afaria.
20:30 Aurora Beltran zuzenean.
23:00 Dukkha eta The Grace of Dionisus zuzenean.
Jaietako lehen eguna.

LARUNBATA 15

ANDOAIN Karrikako jaiak
11:30 Jokoak eta haur ekitaldiak.
13:00 Makarroiak denentzat.
16:00 Mus txapelketa. Sariak lehen lau bikoteentzat. Izen-ematea 15:30an zabalduko dute.
19:00 Zumba.
23:00 DJ Ander Donoso.
Jaietako bigarren eguna.

IGANDEA 16

ANDOAIN Karrikako jaiak
11:30 Meza.
12:00 Toka txapelketa.
12:30 Sagardo dastaketa.
18:00 Boogaloo-cha dantza saioa.
19:30 Playback.
21:00 DJ Ander Donoso.
23:00 Jaien amaiera.
Jaietako azken eguna.

BALORAZIOA

SAN JUAN JAIETAKO JAI BATZORDEA ANDOAIN

Udala eta eragileak, eskuz esku

Uztailaren 5ean elkartu zen Jai Batzordea aurtengo edizioko balantzea egin asmoz, eta udal gobernuak lehen balorazioan esandakoaren ildotik mintzatu da: jaiak oso parte-hartzaileak izan dira, oro har, eta giro onean igaro dira. Bereziki izan da azpimarragarria eragileek izan duten inplikazioa. Badira, edonola, konpondu

beharreko edo hobetu beharreko zenbait aspektu; horiek modu egokian bideratzeko lanean segitzeko konpromisoa hartu dute alde guztiek. Aipagai izan dituzten berrietasun nabarmenen artean mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzat egokitu diren espazioak izan dira. Espazioa egokitu zaie jaietz gozatzeko aukera

berbera izan zezaten; Ackzesible taldeak proposatu eta Udalarekin elkarlanean garatu den ekimena izan da, bi aldeek oso baikor baloratu dutena. Etorkizunean, ildo horretan lanean jarraitzeko konpromisoa dago. Jaiak igarota, Kultura Mahaia deituko da, epe laburrean, herriko diagnosi partekatua egiteko kultur eragile zein

norbanakoekin; beharrak antzeman eta etorkizuneko erronkei heltzeko aukerak aztertuko dira. Udala eta eragileak eskuz esku aritzea nahi du udal gobernuak, harremanak indartzeko, parte-hartze guneak sustatzeko, edota aldaketa edo hobekuntza prozesuak elkar elikatzeko”.



Soka dantzan parte hartu zuten auzotarrak eta dantzariak, antolatzaileekin eta txistulariekin batera. AIURRI

Aurten Kaletxikin, gora San Fermin

Eguraldia lagun, giro ezin ederragoan ospatu dira Kaletxikiko jaiak, joan den asteburuan. Jai Batzordeak antolatu zituen ekitaldi guztiak egin ziren erakargarri auzotarrentzat zein auzora bisitan etorri zirentzat

Xabier Lasa ANDOAIN

Beharbada, Rockalean elektrotzarangak eta Gozategi taldeak ohikoa den baino jendetza kopuru handiagoa eraman zuten plazara.

Distira bereziarekin ospatutako ekitaldien artean, aipatzeak dira Kandido eta Txikitxuen etorrera ostiralean, Esku-pilota Topaketa, XXVIII. Sagardo Lehiaketa, haur zein helduen danborradak eta Nemux Djrekin dantzaldia larunbatean, eta Soka Dantza, Gora Kaletxiki Bandaren

kontzertua eta auzotarren bazkaria igandean.

Aitortzen atalean, nabarmentzekoa da auzoko zenbait herritarrei egin zitzaizkien esker oneko keinua. Batetik, joan den apirilean 100 urte bete zituen Joxe Manuel Erkizia, hainbat ekitaldietan berezitu zuten: Soka Dantzan dantzariak hari eskaini zizkieten Zortzikoak, auzotarren bazkarian haren omenez egin zuten topa, eta azkenik, Gora Kaletxiki bandaren kontzertuan ere lore sorta eman zioten.

Bestalde, Gora Kaletxiki Bandak berak, jaiak eta kaleak animatuz 20 urte daramatzala ospatzeko, bi kide beterrano omendu zituen, Luciano Uribesalgo eta Jexux Ibañez hain zuzen. Eta horretarako, Joxe Mari Oiartzabal konposatzaileak sortuta, haien izena daramaten bi abesti estreinatu zituen kontzertuan. Dena esatera, Bandako kideek Delfi Diez Uribesalgoren emaztea eta Gloritxu Igarategi Ibañezen ama ere hartu zituzten gogoan.

Hitzordu ugari jaietan



Kandido eta Txikitxoak, ostiral arratsaldean Goikoplazan. AIURRI

Kandido Auzotarra alkate, eta makina urtean pilota saiko antolatzaile. Meritu bikoitza Andoni Alvarezena, alkate izendatzeko. Haurtzaroa eta gaztaroa gogoan hartuz, jaietako hasiera eman zion.



Gozategi, ostiral gauean. AIURRI

Gozategi Ikusmina handia zen, eta azkenerako plaza jendez bete zen. Talde ezaguna da Gozategi, jarraitzaile asko dituen. Laz, esaterako, San Juan jaietan jendetza erakarri zuen. Ostiral gaueko jendetza aspaldian ezagutu gabekoa da.



Danborrada, elizatzooan. AIURRI

Danborrada Jaietako danborrada nagusiak auzoko elizatzooan egin ohi du geldialdia. Bertan saioa eskaini zuten, eta ondoren auzoan zehar jarraitu zuten. Helduen danborradaren aurretik haur danborrada irten zen.



KALETXIKIKO JAIEN JARRAIPENA

Jaiak gogoan hartzeko webgunea
ARGAZKIAK, BIDEOAK

www.aiurri.eus



Danborrada Goikoplazara iritsi zen unea. Bertan, Udalak harrera egin zien. AIURRI



Haur danborrada, etorkizuneko danborradaren kabia. AIURRI



Andoni Alvarez, Kandidoren rolean eta, Imanol Etxeberria, Jai Batzordeko kidea dantzariei begira. AIURRI



Soka Dantzara auzotarrek gonbidatu zituztenean. AIURRI



Gora Kaletxiki Banda, aurtengo omenduekin batera. AIURRI



Auzo bazkaria jendetsua izan zen, adin guztietako auzotarrak biltzen dira bertan. AIURRI



Gil eta Dosil, txapelketako garaikurra eskuan. AIURRI

“Golfa jendarteratzea dugu helburu”

KONTXI GIL ETA ANGEL DOSIL URNIETA GOLF

Gipuzkoako Emakumezkoen I. Pitch and Putt Txapelketa jokatu da Urnieta Golf-en, hilaren 15ean zein 16an. Euskal Autonomia Erkidegoko golf-zelai natural bakarra da

Alba Cabrera Jauregi URNIETA

Adarra mendiaren magaleko lur-sail bati zukua atera zioten orain lau bat urte Kontxi Gilek eta Angel Dosilek, golf-zelai bihurtzeraino. Behiak eta ardiak egoten ziren lehen bertan; kirol horren zaleak eta hasiberriak, orain. Altzibar Berri eta Altzibar Zaharraren eremuetan kokatzen da Urnieta Golf, eta, pixkanaka-pixkanaka, erreferentziazko toki bihurtu da. Horren erakusle, asteburu honetako hitzordua: Gipuzkoako Emakumezkoen I.

Pitch and Putt Txapelketa jokatuko da beren zelaian, hilaren 15ean nahiz 16an.

Nola sentitzen zarete Gipuzkoako Emakumezkoen I. Pitch and Putt Txapelketa zuen zelaian hartzeko aukera edukita?

Angel Dosil: Oso aberasgarria da guretzat. Aurretik, ez da egon horrelako lehiaketarik, eta beharrezkoa zen golf ofizialean eta homologatuan. Emakumezkoen nahiz gizonen txapelketak daude profesional mailan. Aldiz, klubetan, askotariko irizpideren

araberako lehiaketak daude, baina, oro har, ez da emakumezkoen lehiaketarik izaten. Baziren liga modukoak, baina asteburu honetan izango da, lehenengoz, Gipuzkoako Emakumezkoen Pitch and Putt txapelketa, hemen, Urnietan. Beharra zegoen jada. **Zer nolako inpaktua du lehiaketak Golf Urnietan eta inguruko golf komunitatean?**

Kontxi Gil: Adin jakin batetik gorako emakume askok ez dute sekula ohiturarik izan kirola egiteko. Eskolan egiten genuen,

baina, hortik harago, ezer gutxi. Ez gaude ohituta. "Nik ez dut sekula ezer egin", diote hona etortzen diren askok. Eta, egia da. "Bada, hau ondo baino hobeto egin zenezake, eta probatzera gonbidatzen zaitugu", erantzuten diet.

A.D.: Doan da lehen klasea, jendeak proba dezan, alde aurretik ordua eskatuta. Jende askori gertatu zaio, soilik, ikustera etorri eta, zelaian, golfean jokatzen amaitzea. Edonor ibili daitezke Pitch and Putt modalitatean. Golf ofizialaren antza handia du, baina distantzia txikiagoekin. 80 urteko emakumeak etortzen dira gurera. Adin guztietako pertsonen kirola egiteko aukera eskaintzen dio Pitch and Putt modalitateak. Golfa jendarteratzea dugu helburu. Gozatzea da kontua, eskuragarri dagoen kirola izatea. Lagun handiak egin dira gure golf zelaian elkar eza-gutu zuten jende asko.

Zeintzuk dira txapelketarako aurreikuspenak, parte-hartzeari dagokionez?

A.D.: Inoiz ez dakizu zer gertatuko den lehenengo aldiz zerbait antolatzen duzunean. Eskatu dezakegu bai, baina ez exijitu. Badakigu ez direla data onenak, jende asko kanpoan delako. Ez digu asko larritzen parte-hartzaile kopuruak. Gehienez, 72k hartu dezakete parte. Gainera, egun bakarrean egin ordez, bi egunetara luzatu dugu txapelketa, goiz edo arratsalde, nahi denean etortzeko.

Egokitzapenak egin behar izan al dizkiozue zelaiari, lehiaketaren beharrei erantzuteko?

A.D.: Belarra naturala izanda, egun guztia moztzen igaro ohi dugu. Epaileak etortzen dira eta kontuan hartzen dituzte txapelketak arautegia bete dezan egin behar diren doikuntzak. Dena dela, ez dugu aparteko aldatearik behar txapelketari begira. Guztira, bederatzi golf-zulo ditu gure zelaiak, eta lehiakide bakoitza batetik hasiko da jokoan, hasierako pistola-kolpea entzun orduko.

Zein abantaila ditu Pitch and Putt modalitateak?

"GIPUZKOAKO EMAKUMEZKOEN LEHEN PITCH AND PUTT TXAPELKETA ANTOLATU DUGU"

A.D.: Edonork joka dezake, eta eskuragarri dago mundu guztiarentzat, alegia, ez da maila handikoa izan behar. Kontzentrazioa eskatzen du eta uxatu egiten dira buruan dituzun kezak. Pilotari ondo emanez gero, errepikatu egin nahi duzu, eta, gaizki emanez gero, konpondu, hurrengo aukeran. Zure lehiakidearen puntuazioa zein kolpekopurua zenbakitu behar dituzu, makilak aukeratu, haizea neurtu, belarraren luzera... Horrek ariketa mentala egiten laguntzen du. Gainera, golf-zulo bakoitza aukera berri bat da. Zure tokian jartzen zaitu golfak, kolpe txarrak edonork dituelako, baita profesionalak ere.

Zelai exijentea dela esango al zenuke?

A.D.: Jakina. Oso zaila da egiten, eta nahita egin genuen horrela. Inguruko asko ez bezala, aldapan dagoen zelaiak da, eta horrek gorputza jarrera jakin batzuetan ipintzera behartzen zaitu. Hemen ikasten duena errazago moldatzen da, ondoren, eremu lauetan. Halaber, orografia konplexuari beste zailtasun batzuk gehitu nitzkion: belar luzeagoa utzi dut, kaleak estuagoak dira, *green*-a aldapan dago... Erronka handia da. Zelaia naturala da, homologatua, eta ez dago inolako alfonbrarik. Ez dugu zertan ureztatu, goizeroko ihintza arduratzen delako hortaz. Berezia da.

Aipatu txapelketaz gain, bestelako lehiaketarik izaten al duzue?

A.D.: Etengabe egiten ditugu txapelketak, esaterako, hemen inguruko nekazal-etxeekin elkarlanean, auzoa eta inguruak ezagutzeko. Aurkako iritziak iritzi, auzoari onura ekarri nahi diogu, eta, bestalde, golf-a eliteko kirol gisa ikusten duen jendeari beste begirada bat eskaini.

Golf Eskola ere badaukazue.

A.D.: Bai, ez horren handia, beste batzuekin alderatuz gero. Zelai txikia da gurea, eta, haurrek, adibidez, jolasetik ikasten dute golfean, material bereziarekin. Dena dela, haurrak taldekiroletan jolastearen aldekoa naiz.

Asteburu honetan, publikoari irekita egongo al da txapelketa, jakin-mina gerturatzeko direnentzat?

A.D.: Noski! Terrazatik ikusi behar dute federatuta ez daudenean. Handicap-a behar duzue jokatzeke, gutxieneko jakintza. Gozatzeko asteburu izango da. Jendeak ondo pasatzea nahi dugu.



AIURRI

Amaitu da pilota-txapelketa

Iragan ostiralean jokatu ziren Gaztetxeko pilota txapelketako finala zein hirugarren eta laugarren postuak. Aurten, berriro, Lontxo Santa Kruz eta Jon Jauregi izan dira txapelkunak, Jurgi Mujikari eta Koldo Ponceri 22-15 irabazita. Hirugarren postuan Loidi-Amonda bikotea sailkatu zen.



Ikusle ugari bertaraten da Goiburuko pilotalekura. AIURRI



Arrantza eskolako kideak, Joseba Barandiaran Ontza elkarteko kidearekin. AIURRI

Arrantza eskolako kide gazteen saioa, Etxarrin

Kaletxikiko jai batzordeak eta Ontza elkarteak infantil mailako txapelketa antolatu zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo haurrekin batera, Zumarragako zaletuak hurbildu ziren heriotzik gabeko arrantza saioa egitera. Arrantzan trebatzeko aukera izan zuten, Joseba Barandiaran andoaindarrak gidatuta. Saioa amaituta, sari-banaketari ekin zioten. Partehartzaileek kapelak eta euliak

gordetzeko kutxa bana jaso zuten. Horrez gain, arrantzan aritzeko eguzkitako berezia zozkatu zuten. Federazioak, bestalde, kainabera bat zozkatu zuen partaideen artean. Arrantza kontuetan trebeak direla erakutsi zuten, dozena erditik gora arrantzatu zuten partaideak bat baino gehiago izan zirelako.



Etxarrin gogo betez aritu ziren. AIURRI



lazko pala txapelketa. AIURRI

Hastear da Goiburuko pala txapelketa

Aurki hasiko da pala txapelketa. Finala abuztuaren 6an izango da, Goiburuko jaietan

Erredakzioa ANDOAIN

Datorren astean hasiko da Goiburuko pala txapelketa herrikoia. Bikote askok eman dute izena, izan ere, uda giroan erakarpen handiko txapelketa bilakatu da. Teniseko pilotekin jokatzeko da, Goiburuko frontoian, arratsaldean hasi eta ia iluntzera bitarteko. Astelehetik ostegunera bitarte izaten dira partidak, izan ere, opor garaian, asko dira asteburuetan kanpora joaten diren herritarrak.


Finala Goiburuko jaien barnean izango da, abuztuaren 6an. Jada asko dira Goiburuko frontoian entrenatzen ari direnak, goiz zein arratsalde, txapelketa hasi aurreko prestaketa-lanei ekiteko.

Gaztetxeko 3x3 txapelketa

Astelehenean ekin zioten Gaztetxeko 3x3 saskibaloia txapelketaren edizio berriari. Hamabost taldek eman dute izena eta aste barnean jokatzeko ari dira partidak, arratsaldeko 18:00etatik aurrera. Final handia uztailearen 21ean izango da, baita hirugarren eta laugarren postuetako norgehiagoka ere. Giro polita sortzen da Gaztetxean.



AIURRI



AIURRI

"Erakusleiho hoberik ez du izango gure aberriak"

Pogacar eta Vingegaard lider sendoen aroan, aurtengo Tourrak badu beste bereizgarri bat

Erredakzioa ANDOAIN - URNIETA

Bereizgarri hori Tourra Euskal Herrian hasi izana da. Eta zehazten hasita, uztailearen 2an Andoain eta Urnietatik barrena igaro zela. Gure begiekin, udalerritik atera gabe, tropela bertatik bertara ikusteko aukera izan dugu. Arrakasta handiarenkin, gainera. Andoni Urbistondo lasterketaren jarraipena egiten ari da Aiurri.eus bidez. Datu zehatza eskaini zuen, lehen atseden egunean: "600.000 lagun pasa izan dira errepideetan ikurrina astintzen, munduari nor eta zer garen erakusten".

Euskal Herriko hasiera historikoa izan dela iritzi du, "itzela" bere hitzetan: "Erakusleiho hoberik ez du izango gure aberriak. Txirrindularitza herria. Merez du? Iritzia. Bai. Garestia da, esango dute batzuk. Baita. Euskal Herria munduan barrena ikusi da, ezagutu gaituzte, lehenik ere ezagutzen ez gintuenak. Halako oihartzun mediatikorik nekez izango du urte luzetan Euskal Herriak".

Gertuko aipamena egin eta gero, geratzen diren etapetan Pogacar eta Vingegaard-en arteko dema noraino iristen den ikusiko dugu. Bero handia espero da, datozen egunetan.



Haritz Zubillaga urnietar zizurkildarra, helmugaratzetik gertu zegoela. AIURRI



Iker Telletxeak bi laguntzaile berezi izan zituen, helmugaratzean. AIURRI

Lasterketaz lasterketa

Uda kirol jarduera betean aritzeko sasoi aproposa da. Aurreko igandean Asteasuko herrigunetik Santamaña ermitaraino doan mendi lasterketa antolatu zuten, eta partaideen artean inguruko lasterkari asko aurki zitezkeen. Horietako batzuk argazki-sorta honetan ageri dira. Gainerakoak Aiurri.eus webguneko argazki-bilduman.



Josu Arregi, Ander Setien eta Ekain Gorrotxategi azken metroetan. AIURRI



Nahia Artola eta Julen Barandiaran elkarrekin igo ziren Santamaña. AIURRI



Urko Otaño helmugara iristen. Azken metroetan alaba izan zuen alboan. AIURRI

Gipuzkoako txapelduna

Mozotegi baserriko semeak erakustaldi bikaina eginez irabazi zuen gizonezkoen Gipuzkoako Ohiko Segatxapelketa, Asteasuko Bulano baserriko belardian, igandean. Hona sailkapena, eta moztutako kiloak:

1. Julen Gabirondo: 5.108 kilo.
2. Jokin Etxeberria: 4.643 kilo
3. Oier Urkola: 3.749 kilo.
4. Mikel Lejartza: 3.419 kilo.



GIPUZKOAKO HERRI-KIROL EN FEDERAZIOA



Urnietako
udala

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



ANALISIA

JON ANDER UBEDA AIURRI

Birala egin da Andoain eta Urnieta arteko bideo-muntaia



Maddi Trutxuelo lankideak egindako argazki-muntaia, iraganeko eta egungo tropelak uztartuta. AIURRI/EUSKALFILMOTEKA

Partekatze moduko datuak eskaini dizkigun bideo bati buruz hitz egin nahi dizut, irakurle. Aurreko astean, Tourra bertatik bertara igarotzen zenez, Andoaingo Gudarien etorbidean filmazioa egitea eskatu genion Xabier Lasa lankideari. Uztailearen 3an, lasterketa igaro zeneko biharamunean, Mikel Arberas lankideak pieza polita osatu zuen. Lasaren bezperako bideo hori Euskal Filmotekak toki berean egindako grabazio zaharrarekin batera uztartu eta sare sozialetan zabaldu zuen.

Izan zuen zabalkundeak harridura eragin digu. Bi tropelak batera eta toki berean ikustea ariketa zirrargarria iruditu zitzaigun. Eta, datuei erreparatuta, bistakoa da gustukoa izan dela milaka lagunentzat ere. Astebeteko epean 173.200 erabiltzaileengana iritsi da bideoa, 7.300 erreakzio sortu ditu (atsegin dut, txalo edo harridura eragiten duten emoji bidez), 1.227 aldiz partekatu da eta 123 iruzkin eragin ditu. Egunek aurrera egin ahala, gainera, zabalkunde handituz doa.

Facebooken ezagutza duen erabiltzaile orok azkar asko ondorioztatuko du, datu horiekin, bideoa birala egin dela. Nazioartean zabaldu da, bereziki Amerikan.

Euskal Filmotekak ekimen polita izan zuen, Laborde anaien aspaldiko grabazio mutua denen eskura ikusgai jarri. 60-70 urte duten irudiak, egungo bideo batekin batera eskainiz, sekulako ikusmina piztu du. Ez da adierazten dugun lehen aldia: Tokikotik eragin unibertuala izan dezaketen edukiak sor daitezke.

Aiurri sare sozial ezagunetan



Maiatzaren 20an Iturzaeta txapelketako partida jokatu zen. AIURRI

Instagramen ikusiena Euri jasa ari zuen Sorabillan, maiatzaren 20an. Partida jokatu nahian, tanto baten bideoa zabaldu genuen Aiurri. Sekulako arrakasta izaten jarraitzen du, oraindik orain. 60.000 ikustaldi ditu bideoak.



Ekainean ikusiena, Twitterren. AIURRI

Twitter

Facebookekin batera, Aiurri erabili zuen lehen sare soziala da. Azken 28 egunetan zabalkunde nabarmen handitu da, %41 inguru. Eta, bereziki, Tourreko bideo-muntaiari esker. Hauteskundeetan ere zabalkunde handia izan zuen.



Ikusiena, Tiktoken. AIURRI

Tiktok

Kontu berriena da, eta erabiltzaileen profila aldatu egiten da. Ikusmin handia piztu dutenen artean, Julen Gabirondorena dago. 1.8 milioi ikustaldi (eta 15.000 atsegite) eragin ditu segan ari den kirolariaren bideoak.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 13

ANDOAIN Kontzertua

"Hitzino bat erran eta banua berehala" diskoa aurkeztera hurbilduko da musikari ezaguna. Kale Giroan zikloaren bigarren ekitaldia izango da. Taldekideez inguratuta ariko da.

19:30, *Otieta parkea. Dohainik.*

URNIETA Plenoa

Urnietako Udalak ez-ohiko osoko bilkura deitu du, agintaldi berriko izendapenak, arduradunak eta liberazioak erabakitzeke.

19:00, *Udaletxea.*

URNIETA Erakusketa ibiltaria

Trebetasun digitalak hobetzeko aukera, "D belaunaldiarekin bat egizu" izeneko ekimenean.

10:00-13:00 / 17:00-20:30, *Kiroldegiaren aurrean.*

OSTIRALA 14

URNIETA Erakusketa ibiltaria

Trebetasun digitalak hobetzeko aukera, "D belaunaldiarekin bat egizu" izeneko ekimenean.

10:00-13:00, *Kiroldegiaren aurrean.*

ANDOAIN Karrikako jaiak

19:00 Jaien hasierako txupinazoa.

19:15 Zumba eta jumping.

20:30 Bokata afaria.

20:30 Aurora Beltran zuzenean.

23:00 Dukkha eta The Grace of Dionisus zuzenean.

Jaietako lehen eguna.

**ANDOAIN Dukkha Andoaingo taldearen kontzertua**

Karrikako jaiak musikaz blai abiatuko dira. Tahures Zurdos taldeko Aurora Beltran zuzenean ariko da, iluntzean. Eta gauean bi talde: Dukkha eta The Grace of Dionisus.

Uztailak 14, ostirala. 23:00. *Karrika.*

LARUNBATA 15

ANDOAIN Karrikako jaiak

11:30 Jokoak eta haur ekitaldiak.

13:00 Makarroiak denentzat.

16:00 Mus txapelketa. Izen-ematea 15:30an zabalduko dute.

19:00 Zumba.

23:00 DJ Ander Donoso.

Jaietako bigarren eguna.

IGANDEA 16

ANDOAIN Karrikako jaiak

11:30 Meza.

12:00 Toka txapelketa.

12:30 Sagardo dastaketa.

18:00 Boogaloo-cha.

19:30 Playback.

21:00 DJ Ander Donoso.

23:00 Jaien amaiera.

Jaietako azken eguna.

IGANDEA 23

ANDOAIN Kale antzerkia

"Eutsi Ramon!" kale antzerkia,

Trapu Zaharra konpainiaren eskutik.

Kalea probaleku bilakatu eta

lehiaketa antolatuko dute.

20:00, *Goikoplaza.*

UDA ZINEMA KALEAN

**"Tadeo Jones 3, la tabla esmeralda"**

Zuzendaria: Enrique Gato. **Gidoia:** Manuel Burque, Josep Gatell.

Herraldea: Espainia (2022). **Hizkuntza:** Erdaraz. **Generoa:**

Marrakzi bizidunak, abentura, komedia. **Iraupena:** 89 min. **Eguna:**

Uztailak 20, osteguna. 19:00, Goikoplaza. Euriarekin Ondarreta ikastetxeko jolastoki estalian.

Abentura biziak, Tadeorenak

Tadeo Jones protagonistari gustatuko litzaioke arkeologo kideek euren arteko bat bezala onartzea, baina planak hankaz gora amaituko du: sarkofago

bat txikitu eta bere lagunak, Momiaren, Jeffen eta Belzoniren bizitza arriskuan jartzen duen konjuru bat botatzen du.

NIRE USTEZ

HERRI PLATAFORMA, OLATU TXURIAK, DOPA HERRI MUGIMENDUAK

Elkarretaratzea Osasun Publikoaren alde

Donostialdeko Herri Plataformakook, Olatu Txuriakook eta D.O.P.A.kook, datorren 15eko elkarretaratzerako deialdia helarazi nahi dizuegu. Ekitaldia eguerdiko 12:00tan Donostiako Amara Berriko Osasun Zentroan izango da.

Bertan, Osakidetzako Lehen Arretaren egungo egoera salatu nahi dugu. Uda honetan, langile gabezia dela-eta, arretaren kalitatea kaskartu egin da.

Esate baterako, Ondarretako Osasun Zentroko arratsaldeko zortzi sendagiletik bi aritu dira lanean. Bestalde, Donostialdeko ospitaletik kanpoko larrialdietako zentroetan –Zarautz, Donostia, Hernani, Orereta–, sendagile askoren jardunaldia bete gabe geratzen dira. 420, gutxi gorabehera, hiru hilabete hauetan. Erizainak betetzen du sendagilearen rola.

Osakidetzako arduradunei lan-taldeak zentro guztietan osa ditzatela eskatzen diegu. Behar dugunean, dagozkigun osasun langileak aurrez aurreko arreta bermatu ahal izateko.

Gu kalitatezko Osasungintza Publikoaren alde ari gara eta arituko gara. Murrizketarik ez!!!! Suntsipenik Ez!!!!



www.aiurri.eus



- Iritzia
- Postontzia



Barrasa, Usandizaga, Lasa, Alvarez, Barandiaran eta Fondon udal ordezkariak. AIURRI

Auzoz auzo ibiliko dira, datozen asteetan

Andoaingo Udal Gobernu taldeak auzotarren ahotsa entzun nahi du agintaldiko programa aurkeztu aurretik

Erredakzioa ANDOAIN

Udal gobernu berria martxan da, eta datozen egunetan sail bakoitzeko batzordearen lehen deialdiak egingo dituzte. Hasiera honetan, bulegoko jardunaren osagarri, auzotarrengara iristeko iragarpena egin dute udal arduradunek: "Udal gobernuak ezin du bere jarduna ulertu herritarren ahotsa entzun gabe. Horregatik, alkatea buru dela, auzoetatik bisita-erronda abiatuko du udal-gobernu berriak. Udaletzeko hormetatik atera eta auzoetara jaitsiko da, auzoetako eta auzotarren egoeraren berri izan asmoz".

Uztailean eta irailean

Bisita erronda aste honetan bertan hasiko da, Karrika auzoan. Gainerako auzoetarako behin behineko datak iragarri dituzte. Abuztua tartean izanik, gerta daiteke aldaketaren bat egin

behar izatea. Behin behineko egitaraua:

- Uztailak 13, osteguna. Karrika.
- Uztailak 19, asteazkena. Zumea eta erdigunea.
- Uztailak 21, ostirala. Bazkardo.
- Uztailak 26, asteazkena. Buruntza.
- Uztailak 28, ostirala. Etxeberrieta.
- Irailak 4, astelehena. La Salle etorbidea eta inguruak.
- Irailak 7, ostirala. Kaletxiki.
- Irailak 13, osteguna. Sorabilla.
- Irailak 14, ostirala. Goiburu.

Gobernu programaren osagarri

Asmo eta ideia argiak dituela adierazi zuten agerraldian. Eta horiek osatze aldera, ezinbesteko ikusi dute auzoetara joan eta horiek osagarri bilakatzea.

Alvarez alkatea aurreratu zenez, irailean agintaldi honetako gobernu programa aurkeztuko dute.



ZUBIAGA

U23 I EH Bildu, Urnietan

Espainiako Kongresuko eta Senatuko ordezkariak berritzeko hauteskundeak deitu dituzte datorren uztailearen 23an. EH Bilduk ekitaldia antolatu du Urnietan, ostiral honetan. Mitina eta luntxa egitekoak dira Zaldundegi ondoko plazaxoan, arratsaldeko 19:00tan hasita. Euriarekin EH Bilduko lokalean egingo dute. Mario Zubiaga senaturako hautagaia izango da hizlaria.



PSE-EE

U23 I Sozialistak, kanpainen

Gipuzkoako sozialisten ordezkariak bat Andoaingo merkatuan izan zen, astearte goizean. Ohikoa dutenez, larrosak banatu zituzten. Argazkian ageri dira, besteak beste, Rafaela Romero Gipuzkoako hautagaia. Kongresurako hauteskundeak uztailearen 23an izango dira. Biharamunean, Elkarrekin Podemoseko Pilar Garrido hautagaia ere Andoainera hurbildu zen.

U23 I Sumar, kanpainen

Sumar koalizioako kideak Andoainean izan ziren, asteazken goizean, lehen sektorearen aldeko adierazpena egiteko: "Landa mundu bizia nahi dugu, bertako biztanleentzat erakargarria izango dena. Landa-mundu bizia, non biztanleek funtsezko zeregina betetzen duten kontserbazioan eta iraunkortasunean". Pilar Garridok eta Joserra Becerrak hartu zuten hitza.



SUMAR

ZORION-AGURRAK



ANDOAIN

Itxaso eta Eñaut Berrueta!
Zorionak bikote!! Itxaso printsesak uztailearen 23an 7 urtetxo, eta Eñautek uztailearen 27an 11 urte, hori dek gizona hori! Amona, aitona, izeba eta osabaren partez, ondo pasa egunak eta gozatu oporretaz! Muxu pila pila!



ANDOAIN

Zorionak Nere
Nerek 8 urte beteko ditu uztailean, eta primeran ospatuko dugu familian eta lagunekin. Asko maite zaitugu!

Urte askotarako!

- www.aiurri.eus
Zorion agurrak atalean.
- **Whatsapp bidez:** 619 16 35 37
- **diseinua@aiurri.eus**
- **Arantzibia 4-5, behea** Andoain
- **Telefono zenbakia:**
943 300 732.

TELEFONO ZENBAKIAK

URNIETA

Bertan: 943 008 000.
Udaltzaingoa: 092 / 943 008 000.
Osasun zentroa: 943 006 680.


ANDOAIN

Ataria: 943 300 830.
Udaltzaingoa: 943 300 819.
Osasun zentroa: 943 006 670.



andoainDARRA
euskaraz

Okm:
batzen gaituen
distantzia



**Mendira,
hondartzara,
festara...**

**Uda honetan ere zurekin
eramango gaituzu**

